

Nº9 Zbk2010ko martxoak 15 de marzo de 2010



Gizarte Ekonomia Legea sei hilabeteetan onartua izan liteke, Ministroen Kontseiluak aditzera eman duenez

Gizarte Ekonomia antolatu eta argiztatuko duen legeaz gain, Exekutiboak neurri ekonomikoak iragarri ditu gizarteratzea eta pobrezia kontrako neurriak bultzatzeko.

[Informazioa +](#)



CIRIEC-Españak Gizarte Ekonomiako legea lantzeko txostena aurkeztu du

Arauren helburua da sektore ekonomiko honi egokitzen zaion lege-tratamendua ematea, eta Espainiako ordenamendu juridikoan dagokion espazioa aurkitzea gehiago ikus dadin bultzatzeko.

[Informazioa +](#)



Krisiaren ondorioak Hegoaldeko herrialdeetan

Elizbarrutietako Misioa, Caritas eta Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraliza Institutua hiru jardunaldiz osatutako Iparralde-Hegoaldeko etengabeko heziketako programaren garapenean murgilduta daude hilabete honetan. Lehenengo saioak, martxoaren 9an, egungo atzeraldi egoera jorratu zuen Hegoaldeko herrialdeen ikuspuntutik.

[Informazioa +](#)



Euskal kooperatibisten delegazio batek parte hartu zuen Espainiako VI. Nekazal Elikadurako Kooperatiben Kongresuan

Nekazal elikaduraren sektorearen etorkizuna eta kooperatibek jarraitu beharreko estrategiak aztertzeke antolatu zen topaketan izan ziren, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako saileko sailburuorde Jose Luis Landa eta Munduko Landa Foroko idazkari nagusi Joxe Maria Zeberio.

[Informazioa +](#)



Krisi ekonomikoak gizon eta emakumeengan dituen ondorio ezberdinen analisia

Euskal Herriko 'Economistas Sin Fronteras' elkarteak eta Ekonomisten Euskal Elkargoak antolatutako jardunaldi batek atzeraldi ekonomikoak sexu bietan izan duen eragina jorratu zuen eta batez ere lan arloan berdintasuna bultzatzeko gakoak eskaini zituen iragan martxoaren 9an.

[Informazioa +](#)



2010 urtean zehar gizarte ekonomia, lan autonomia eta ardura sozial korporatiboa sustatzeko diru-laguntzen deialdia argitaratu da

Los interesados deberán rellenar la solicitud que podrán descargarse de la página

www.boe.es/boe/dias/2010/02/17/pdfs/BOE-A-2010-2607.pdf y presentarla antes del 17 de marzo.

[Informazioa +](#)



Krisiaren ondorioz 1.200 euskal autonomok bertan behera utzi dute beren negozioa urtarilla eta otsaila artean

Espainia osoan autonomo kopurua 28.500 langiletan gutxitu da bi hilabeteotan. Jaitsiera 2009ko epealdi berean erregistratutakoa baino txikiagoa da, 55.316 autonomo galdu baitziren orduan.

[Informazioa +](#)



Eroskik 75 milioi euro eskuratuko ditu bi supermerkatuaren salmentarekin

W. P. Carey inbertsio enpresak erosi ditu higiezinak eta epe luzeke



IUDESCOOP-ek Gizarte Ekonomiako Master Ofizialerako aurre-matrikulazio epea ireki du

Ikasleei zein beren ezagutzak hobetu edo birziklatzeko asmoa duten profesionaleri zuzendutako programa modu presentzialean egingo da Valentzian, 2010eko urritik 2011ko ekainera bitartean. Heziketa atalaren barne, institutuak zuzenbide kooperatiboko eta gizarteko ekonomiako mintegi bat ospatu berri du.

[Informazioa +](#)

alokairu kontratua sinatu du Eroskirekin. Horrela, konpainia euskaldunak negozioa ustiatzen jarraitu ahal izango du orain arteko baldintza beretan.

[Informazioa +](#)

Ez baduzu buletina gehiago jaso nahi, erantzun mesedez helbide honetara mezuaren gaiaren eremuan BAJA hitza ipiniz